

PRENTSARAKO OHARRA

2018/02/18

## **Aldundia, Itsasadarra Museo ondoko uhin igerilekuaren eta haize tunelaren proiektuaren gaineko informazioaren zain**

Lorea Bilbao Bizkaiko Foru Aldundiko Euskera eta Kulturako diputatuak gaur goizean adierazo dauenez, ez dauka oraindino Bilboko Itsasadarra Itsas Museoaren ondoko nasa batean antza instalau gura diran uhin igerilekuaren eta haize tunelaren gaineko datu zehatzik. Aldundiko arduradunak, gaur goizean egin dan Batzarrean adierazo dau hori. Bertan, Arturo Aldecoa Talde Mistoko Batzordekideak aurkeztu dituan lau ekimen eztabaidatu dira.

Aldecoaren galderea, orain lau urte entzun zan proiektu baten ingurukoa izan da. Bere eretxiz “Museoarentzat ona izango litzateken elementu erakargarria izan daiteke, baina aldi berean, adi zaindu beharko da zelan gauzatzen dan”. Bere erantzunean, Lorea Bilbaok azpimarratu dau, beste ezer baino lehen, Museoak ez dauela proiektuan parte hartzen; gero, sustatzaileak orain arte ez dauela ezelango egikaritze proiekturik aurkeztu; eta, bukatzeko, bisitariak erakarri daikezan arren, ikusteko dagola Museoaren instalazinarako onuragarria izango dan ala ez. Batzarretako taldeen aldetik zalantza asko agertu dira proiektuaren bideragarritasunaren eta ekarri daikezan abantailen inguruan, holango aisia proiektu baten jasotzaileen tipologia kontuan izanda.

Batzordeak Euskera eta Kulturako diputatuaren bigarren agerraldi eskaria erregistrau dau, Bidebarrietako liburutegiko hitzaldi aretoaren ganga-estalgia berreskuratze posiblearen ingurukoa. Aldecoak, agintari frankisten erabagiz pintura berdez estaldu ziran José Echenagusia margolariaren freskoak aitatu ditu. Lorea Bilbaok azaldu dauenez, bere saila une oro egon da hartu-emonetan Bilboko Udalagaz, eraikinaren titularragaz, eta erakunde horrek ez dauka ezelango esku-hartzerik aurreikusita, ez dalako Echenagusiak egindako artelanaren aztarnarik geratzen.

Diputatu andrearen hirugarren agerraldiaren xedea “Pirinioetako Burdinaren Bidearen” proiektua izan da. Mugaz gaindiko ibilpide horren helburua ondare historiko eta industrial baliotsua balioan jartea da. Une honetan Andorrek, Akitaniak, Kataluniak eta Gipuzkoak hartzen dabe parte proiektuan. Batzarretako Talde Mistoa Bizkaiak ibilpide horretan izan daiketan partaidetzaren gainean galdetu dau. Lorea Bilbaok zehaztu dauenez, Bizkaia Pirinio inguruan ez dagon arren, burdinaren ustiapenagaz daukan lotura historiko indartsuak ekimen horretan parte hartzea justifikau egingo leuke. Dana dala, adierazo dauenez, Foru Aldundiak ez dauka oraindino behar besteko informazinarik, eta egitasmoagaz bat egiteko edo ez egiteko erabagia, proiektuaren azterketa zorrotzaren ondoren hartuko da. Batzarretako talde guztiak Bizkaiko meatzaritzako ondare aberatsa lantzearen alde agertu dira, baina euren zalantzak agertu ditue, Burdinaren Bide hori gauzatzen dan eremu geografikoa dala eta.

### **ONETSI EZ DAN ARAUZ BESTEKO PROPOSAMENA**

Eguneko gai zerrendea, Talde Mistoak, Lurralde Historikotik kanpoan dagozan eta interes historiko nabarmena daben Museoak eta bestelako lekuak bisitetako ikasleen garraiorako diru-

laguntzen eta bestelako laguntzen gainean aurkeztu dauen Arauz Besteko Proposamen bategaz osatu da. Gainerako taldeak bat etorri dira esatean Foru Aldundiak ez dauela arlo horretako eskumenik. Hori dala eta, proposamena ez da onetsi. Aldeko boto bakarra proposamena aurkeztu dauenarena izan da. Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeetako bederlatzi ordezkariak kontrako botoa emon dabe, eta Talde Popularreko, Podemos Bizkaiaiko eta EH Bilduko seiak abstenidu egin dira.

---

NOTA DE PRENSA

17/01/18

## **La Diputación, a la espera de información sobre el proyecto de piscina de olas y túnel del viento junto al Museo Marítimo**

La Diputada Foral de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, ha afirmado esta mañana no tener aún datos concretos acerca de la posible instalación de una piscina de olas y un túnel del viento en uno de los diques ubicados junto al Museo Marítimo Ría de Bilbao. La responsable foral ha realizado estas declaraciones en el transcurso de la Comisión correspondiente celebrada esta mañana, en la que se han debatido cuatro iniciativas del apoderado del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa.

La pregunta de Aldecoa se refería a un proyecto del que se tuvo conocimiento hace cuatro años y que “puede suponer un reclamo del que se beneficiaría el Museo, aunque a la vez habrá que estar atentos a cómo se desarrolla”. En su contestación, Lorea Bilbao ha remarcado, en primer lugar, que el Museo no participa en el proyecto; en segundo lugar, que su promotor no ha presentado hasta la fecha ningún proyecto de ejecución; y finalmente, que aunque pudiera atraer visitantes, está por ver si resultaría beneficioso para el instalación museística. Por parte de los grupos junteros se han puesto de manifiesto muchas dudas acerca de la viabilidad y de las ventajas que pudiera aportar, dada la tipología del público al que iría destinado un centro de ocio como el propuesto.

La Comisión ha registrado una segunda solicitud de comparecencia de la Diputada Foral de Euskera y Cultura acerca de la posible restauración del techo abovedado en el salón de conferencias de la Biblioteca de Bidebarrieta. Aldecoa ha hecho referencia a los frescos del pintor José Echenagusia que fueron cubiertos con pintura verde por decisión de las autoridades franquistas. Lorea Bilbao ha explicado que su Departamento ha estado en todo momento en contacto con el Ayuntamiento de Bilbao, que es el titular del edificio, y que éste no tiene prevista ninguna intervención, dado que no quedan restos del trabajo de Echenagusia.

La tercera comparecencia de la Diputada ha tenido por objeto el proyecto “la Ruta del Hierro de los Pirineos”, un itinerario transfronterizo que pretende poner en valor un valioso patrimonio histórico e industrial, y en el que participan Andorra, Aquitania, Catalunya y Gipuzkoa. El juntero del Grupo Mixto se ha interesado en la participación de Bizkaia en el mismo. Lorea Bilbao ha precisado que, aun cuando Bizkaia no está integrada en el ámbito pirenaico, su fuerte vinculación histórica con la explotación del hierro justificaría su participación en esta iniciativa. En cualquier caso ha insistido en que la Diputación Foral no dispone aún de información suficiente, y su voluntad de incorporarse dependerá en última instancia de un conocimiento exhaustivo del proyecto. Todos los grupos se han mostrado favorables a cultivar el rico patrimonio minero de vizcaíno, si bien han expresado sus dudas en cuanto al ámbito geográfico concreto en el cual se

desarrolla esta Ruta del Hierro.

#### PROPOSICIÓN NO DE NORMA RECHAZADA

El orden día se ha completado con una Proposición No de Norma del Grupo Mixto sobre ayudas y subvenciones para el transporte de escolares desde Bizkaia para visitar centros museísticos y lugares de acreditado interés histórico emplazados fuera del Territorio Histórico. El resto de los grupos han coincidido en señalar que la Diputación Foral no dispone de competencias en esta materia, por lo que la proposición ha sido rechazada con el único voto a favor de su promotor, el voto negativo de los nueve representantes de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, y las seis abstenciones correspondientes a los grupos Popular, Podemos Bizkaia y EH Bildu.